

**Martxoak 9** 19:30etan

### Kontzertua :

Mixel Etxekopar (flautak) • François Rossé (pianoa)

Bi artisten topaketa espantagarria.

Mixel Etxekopar, txorien pare, beti txistuz ari da. Txirula jotzen du inork baino hobeki, eta txirularekin batera, beste flauta mota zenbait. Ttiki-ttikitik xuberotar herri kulturaz hazia da, eta aspalditik, musikari gisa, parte hartzen du maskaradetan eta pastoraletan. Ohitura errespetatuz, beti soinu berriak bilatzen ditu, sorkuntzari ateak zabalduz. François Rossé, formakuntzaz pianista klasikoa da, duelako hogeita hamar urte hauetan, munduan festival ospetsuetan parte hartzen du. Gaur egun, erabat berezitua da musika inprobisaketan. Bere pianotik ateratzen ditu soinu oso bereziak, harrigarriak.

Bi artistek eskaintzen duten kontzertua zinez arraroa da, entzutekoa eta... ikustekoa ere bai !

**Martxoak 16** 19:30etan

### Mintzaldia :

**Pierres Xarriton : « Ene guduak »**  
Galdezkatzailea : Pantxoa Etxegoin

Pierres Xarriton, egiazko monumentu bat da. Gazte gazterik euskal kontzientziaren jabe, bere bizi luzean, beti agertu da Euskaldunen eta Euskal Herriaren alde. Sail askotan – kulturaz, ekonomian, sozialean - ideia berriak eman ditu eta haien obratzeko hortzez eta haginez borrokatu da. Adibideak ugari dira : Hazparneko kolejioko teknikoaren sortzailea, Parisko Euskal Etxearen bultzatzailea, « *Gazte* » kazetaren burua, Baionako lehen euskal astearen eragilea (geroago Udako Euskal Unibertsitatea bilakatu dena), Jean Etxepare medikuaren eta Pierres Larzabal antzerkilariaren obrak bildu ditu eta argitaratu. Eta euskaltzain gisa daraman lana ere aipatzekoa da. Pierres Xarritonek gogoan duena, ahoan ilerik gabe erraten du. Eta beti aurrera begiratuz doa !

Beti badu mila gauza egiteko eta... gudu bat edo bi eramateko !  
Pantxoa Etxegoin Euskal kultur erakundeko zuzendariak galdezkatuko du, eta gero, elkarrizketa KD batean plazaratuko da, lekukotasun paregabea izango baita.

**Martxoak 23** 19:30etan

### Kantaldia :

PIL-PIL taldea

**Baxenafartarrak kantari**

Alexandre, Bernadette eta Jojo Bordagaray  
kantuz, Mizel Thikoipe eta Philippe Albor gitarran

Jojo eta Bernadette, anaia-arrebak, gaztetxoak ziren oraindik beren lehen diskoa « *Agur* » atera zutenean, 1978an. Geroztik, Jojo beti kantuz segitzen du, talde bat ere sortzen zuela : « *Jojo eta Ramuntxo* », hiru disko plazaratu dituena. Anaia arrebak oroiturik, haurtzaroen aitarekin ikasi kantuez, berriro hiruak elkartu dira eta taldea osatu dute bi musikarien laguntzarekin. Eta hara, atzoko eta gaurko kantu eder hunkigarriak xaramelatzen dituztela, gogo-bihotz guztiei pil-pil eginaraziz...

**Martxoak 30** 19:30etan

### kantaldia :

**Dominica eta Niko ETHART**  
**Aita semeak kantari**

Jatorriz Altxürükutarra, Dominica Etxart, beste euskaldun gazte asko bezala, lan bila Parisera joan zen. Lanpostu berezia aurkitu zuen eliza batean : zeremoniei ospe gehiagoren emateko, soineko koloretsuak jantzi egiten zituen, eta ahots ederra baitzuen, egunero meza kantatzen zuen. Arratsetan, ateak itxita, eliza barneko isiltasunean, Dominikak kantuak irakasten zizkien bere xuberotar lagunei eta bereziki Niko semeari. Aitak kanturako eman zion gustua, Nikok, bere aldetik, rock'n'roll erregistroan ederki betetzen du. Eta orain, aita ere Euskal Herrira itzulia baita, aita semeak kantari ibiltzen dira, pasatzen diren plaza bakoitzean arrakasta handia biltzen dutela.